

## / Nabarmentzekoak

- > Ikastaro gehiago Gurarin (2. or.)
- > "El dúo de la africana", udako opera konpainia xume baten amodiozko korapiloak (3. or.)
- > Getxok Bizkaibiziko hiru geltoki berri izango ditu Iparbiden, Sarrikobason eta Maidaganen (5. or.)

**GETXO SORMEN HUB**

\* Getxo Sormen Hub-ek sormen- eta kultura-ekintzaitzaren eragile gisa duen zeregina sendotu du (4. or.)

**Agate Deuna koru jaialdia.** Otsailak 4, asteazkena, talde eta abesbatzen kantak, kaleetan. Saio bateratua 20:00etan Algortako Geltokiko plazan eta Romoko Santa Eugenia plazan.

**Antzerkia.** Otsailak 6, ostirala, 20:00etan, Muxikebarrin, "Aita" (euskaraz), Jon Plazaolarekin. Sarrerak agortuta.

**A-GENDA**

**Aingeru Torrontegi Ayok, Carlos Sergio Atxotegik eta Elisabete Basañez Pérezek ordezkatu dituzte**

## San Nikolas 11.eko kasuan ikertutako hiru zinegotziak kargugabetuak izan dira

Algortako San Nikolas kaleko 11. zenbakiko eraikineko eraispenaren kasuagatik ikertzen ari diren EAJ/PNVko hiru zinegotziak pasa den asteartean kargugabetuak izan ziren eta Aingeru Torrontegi Ayok, Carlos Sergio Atxotegik eta Elisabete Basañez Pérezek ordezkatu dituzte. Hirurek beren karguak alderdiaren esku utzi zituzten, ikertu gisa deituak izan zirela jakin ondoren. Beren errugabetasunari eusten diote, baina kargua uzteko erabaki hori hartu dute haien defentsa errazteko eta EAJ/PNVren irudia babesteko.



Aingeru Torrontegik 55 urte ditu eta Ekonomia lizentziaduna da. Elisabete Basañez, adinez 54 urtekoa, administrari laguntzailea da, eta Carlos Sergio, 57 urtekoa, Bizkaiko Foru Aldundiko egungo Kirol zuzendaria da.

Amaia Aguirre alkateak adierazi zuen ordezkapenak ahalik eta lasterren egingo zirela eta, aldi berean, arloak berregituratuko direla udal zerbitzu guztien funtzionamendu normalizatua bermatzeko.

**Dena prest dago Arenasek Ourense CF hartzeko igande honetan, otsailak 1, 12:00etan**

## Fadurako belar naturaleko zelaia egokitzeko lanak amaitu ditu Getxo Kirolak-ek

Dena prest dago Faduran Arenas Clubek igande honetan, otsailak 1, 12:00etan, Ourense CFren aurka jokatuko duen partidarako, Lehen Federazioko liga jardunaldiaren barruan.

931.000 euroko inbertsioarekin, Getxo Kirolak-ek belar naturaleko zelaia egokitzeko lanak amaitu ditu, Espainiako Futbol Federazioak Getxoko taldea lehiatzen den mailan eskatzen zituen epeak eta baldintzak kontuan hartuta. Horrela, hemendik aurrera, Club Deportivo Getxok (Ohorezko Mailan jokatzen du) eta Arenas Clubek euren partidak lokal gisa jokatu ahal izango dituzte zelai berri batean.

Zelaia egokitzeko lanek bi hilabete baino gehiago iraun dute, eta lan horien barruan sartu dira perimetroko hesiak konpontzea, eraikin nagusiko aldagelak berritzea, zelaiaren hondoetan nahiz ibaitik hurbilen dauden eremuetan dauden harmailak saneatzea eta konpontzea



eta dauden tribunak konpontzea. Era berean, zelairako sarbideak eta argiztapena hobetu dira (jokalekuarena berarena eta, oro har, esparruarena), eta komunikazio- eta segurtasun-sistema hobeak instalatu dira (megafonia eta bideozaintza).

**Klubaren anezka-busak**  
Bestalde, Arenas Clubek doako autobus zerbitzu berezia jarriko

du martxan bazkideentzat eta zaileentzat. Autobusak 11:00etan, 11:15ean, 11:20an eta 11:35ean aterako dira, Kale Nagusitik (Krunch aurrean), eta horiek ere Amaia etorbidean geldituko dira (Antiguo Golfen aurrean).

**Ibai-pasealekua egokitzea eta Fadurako sarbide berria**  
Futbol federazioak Arenas Clu-

bek belar naturaleko zelaian lehiatzeko ezarritako epeak bete ondoren, Getxo Kirolak-ek otsailan zehar zelaia eta Gobela ibaiaren arteko ibai-pasealekua egokituko du. Fadurako kiroldegia zeharkatzen duen pasealekuaren txukuntzeari esker, María Ibarrako plazaren inguruan dauden kiroldegirako sarbidea ireki ahal izango da.



## URTARRILAK 29 OSTEGUNA

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Alfonso Ruiz Palaciosen "La cocina" (AJB). 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

**Aurkezpen literarioa.** 19:00etan, Muxikebarrin, "Sobre las cinco almas de Francesco Pasquale" liburua- ren aurkezpena, Unai Elorriaga egilearekin.

**Neguan Flamenco.** 20:30ean, Muxikebarrin, Ana Polanco. Gonbidapenarekin (Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean).

## URTARRILAK 30 OSTIRALA

**Zine-Kluba.** 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Guan Huen "Black dog" (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

**NeguFest.** 21:00etan, Muxikebarrin, Lanus Lester. Sarre- rak agortuta.

## URTARRILAK 31 LARUNBATA

**Neguko bidaia.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Alles Gute zum Geburtstag, Franz!" (Zorionak, Franz!), Ainola Quartetekin. 5 euro.

**Zarzueta.** 20:00etan, Muxikebarrin, "El dúo de la africana", la Compañía Milnotese- kin. 30 euro.

## OTSAILAK 1 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Kayara, la guerrera del imperio inca" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Zapatos rojos y los siete trolls" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

**Haur ikuskizuna.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Lamiaren ispi- lua", Patata Tropikala Antzerki-Laborategiarekin. 8 euro.

## OTSAILAK 4 ASTEAZKENA

**Aurkezpen literarioa.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Querido comercio: la guía para adaptarse a la era digital" liburua- ren aurkezpena (gaztelaniaz), Maitane Delgado, Iván Jaspe eta Beatriz Lópezekin.

**Agate Deuna koru jaialdia.** Arratsaldean zehar, udalerriko kaleetan, talde eta abes- batzen kantak. **Topaguneak.** 20:00etan Algortako Geltoki- ko plazan eta Romoko Santa Eugenia plazan.

## OTSAILAK 5 OSTEGUNA

**Liburu aurkezpena.** "Es- natu ahal hil", 18:00etan, Algortako Azebarri Kultur Elkartearen egoitzan. Hiz- laria: Garikoitz Goikoetxea. Antolatzailea: Bagara Nor- rra Lepoan elkar-teen laguntzarekin.

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Carla Simonen "Romería" (AJB). 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

## OTSAILAK 6 OSTIRALA

**Errezitaldi poetiko-musi- kala.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Ángela Figuera: poesía" (gaztelaniaz). Asociación Artística Vizcaína eta Martxel Intxaurre (gitarra).

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Aita" (euskaraz), Jon Plazaolarekin. Sarre- rak agortuta.

**Zine-Kluba.** 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Federico Luisen "Simón de la montaña" (gaztelaniaz). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

## OTSAILAK 7 LARUNBATA

**Gorazarrea. Gerra Zibilaren, lehenagoko gatazka zibilen eta frankismoaren biktimei.** 12:00etan, Galeako pasealekuan dagoen "Oroi- menaren liburua" eskultura- ren ondoan.

**Storytime for babies.** 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "The messy playroom" (ingelesez). 1-2 urte. Izen- ematea (doan): [getxo@kidsandus.es](mailto:getxo@kidsandus.es) / [algor- ta@kidsandus.es](mailto:algor- ta@kidsandus.es)

**Neguko bidaia.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Tokyotik etxera bueltan", Juan Ortiz Triorekin. 5 euro.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Kaka" (euskaraz), Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe, Erika Olaizola eta Xanti Agirrezabalarekin. 12 euro.

## OTSAILAK 8 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Ainbo, Amazoniako gerraria". 7 urtetik gorakoentzat. 2,50 euro.

**Haur magia.** 18:00etan, Muxikebarrin, Eleder magoa (euskaraz). Sarre- rak agortuta.

# Udalak euskarazko eredu- etan matrikulatza- ra animatzen du

Bi eta hiru urteko haurren matrikulazio epea otsailaren 2tik 13ra izango dela eta, beste urte batez, Udalak fami- liak seme-alabak euskarazko eredu- etan matrikulatza- ra animatzeko urteroko kan- paina jarri du abian. Ohi be- zala, Amaia Aguirre alkateak lehenengo aldiz matrikula egin behar duten adin horre- tako haurrak dituzten 829 fami- liei eskutitz bat bidali die animatzeko B, eta batez ere D, eredu- etan egitera, horrek aukera emango baitie euska- raz bizitzeko etorkizunean, horrela erabakitzen badute. "Hezkuntza sistemak gure umeak txiki-txikitatik euskara- ren munduan murgiltzeko au- kera eskaintzen du. Etorkizuna anitza, inklusiboa, euskararekin erdigunean, eta eleanitza izan behar dela uste dugu, horrega- tik euskarazko eredu- etan ma- trikulatza- ra animatzen dugu



eta ibilbide horretan egunero- koan lagundu ahal duten udal webgunean eskuragarri dauden adituen hainbat aholku eta zen- bait baliabide erabiltza- ra ere",

zehaztu du alkateak. Udalak aipatutako mezua duten kartelak ere zabaldu- ko ditu. Informazio gehiago: <https://labur.eus/p4n2xvqs>

## Ikastaro gehiago Gurarin

Otsailaren 2tik 16ra zabalik izango da Udalak Gurari Ema- kumeen Etxean ikasturtearen bigarren aldirako antolatuta- ko ahalduzko ikastarotarako izenematea. Adin eta jatorri guztietako emakumeentzat antolatuta, helburua da errea- litatea eta pertzepzioak eral- datzeko ikastea eta tresnak eskuratzea, gizarte aldaketari bideratuta, indarrak batu eta sinergiak sortzen diren tokian.

Izenematea behar duten taile- rrak hurrengoak izango dira:

- *¡Chi Kung: mejorando nuestra energía vital!*
- *¡Tinta en resistencia! Serigrafía feminista para el 8M*
- *Yo reparo: electricidad y carpintería*
- *Las cuentas claras: Entender las finanzas, desmontar el sistema*
- *Autodefensa feminista*
- *Txalapartaren hastapena*

## "#DerechosEnRed" proiektua

Otsailaren 4an, asteazke- nean, 17:30ean, #DerechosEn- Red proiektua abiaraziko da Romo Kultur Etxean, Kanpo Arazoetako Ministerioak, Euro- par Batasunak eta Bizkai- ko Foru Aldundiak, besteak beste, finantzatuta eta eCivis elkarteak apirilera arte aurre- ra eramango duena. Ekimena zine forumeko dinamikan eta podcasten zuzeneko gra- baziotan oinarritzen da eta *El chico que domó el viento* filma-

- *Habita tu cuerpo desde una mirada feminista*
- *Resolviendo conflictos e identificando privilegios: de lo personal a lo comunitario*
- *Acompañar el duelo en la migración desde el cuidado feminista y antirracista*

Gehienez hiru ikastarotara- ko egin daitekeen doako izen- ematea udal webgunean (<https://getxo.eus/eu/igualdad>) dagoen formularioaren bidez egin beharko dute interesa- tuek; edo 944 660 138 telefo- noaren bidez (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, larun- batetan 15:00etatik 21:00eta- ra, eta igandeetan 11:00eta- tik 14:00etara eta 15:00eta- tik 19:30era), eta Gurari Etxean, Telletxe eta Benturillena ka- leen arteko gurutzean lekutu- ta, aipatutako ordutegian.

## Kolon-ondesteko minbiziaren prebentzioa

Bizkaiko Minbiziaren Aurkako Elkarteak eta Udalak Osakide- tza apirilera arte aurrera era- maten ari den kolon-ondesteko minbiziaren prebentzeko kanpai- nan parte hartzeko deia egin diete 50 eta 74 urte bitarteko her- ritarrei. Egin ezazu testa kolon- ondesteko minbiziaren prebentzeko, kanpainak animatzen du TSOH detekzio goiztiarreko proba (Gorozkietan Ezkutututako Odolaren Testa) egitera. Etxean jasotzen den proba da, erraza, higienikoa, eroso, arriskurik gabekoa eta aurretiko hitzor- durik gabekoa. Osakidetzaren datuak aipatzen dituen elkar- tearen arabera, 2023an Areetako biztanleen % 60,08k, Alango- koen % 64,04k eta Algortako % 68,17k egin zuten proba. Txartelik ez edukitzekotan, 900 84 00 70 doako telefonora deitu behar da, eta izena eman proba egiteko.

## Argiztapen solidarioa

Areetako kaia eta igogailu publikoak arrosaz argiztatu- ko dituzte otsailaren 3ko eta 4ko gauetan, Minbiziaren Munduko Eguna dela eta. Bestalde, hilaren 13ko eta 14ko gauak gorritik argiztatu- ko dira, Sortzetiko Kardio- patien Nazioarteko Eguna zuzeneko kontzientziazeko.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komuni- kazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bi- zitzari lotutako albisteak eta informa- zioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



## “El dúo de la africana”, udako opera-konpainia xume baten amodiozko korapiloak

Milnotes konpainiak *El dúo de la africana* zarzuela taularatuko du larunbatean, hilak 31, Muxikebarrin. Pieza horrek umorez kontatzen ditu udako opera konpainia apal baten amodiozko korapiloak, Meyerbeerren *La Africana* entseazten bitartean. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrerak 30 euro balio du.

*El dúo de la africana* genero txiki-ko zarzuela nabarmena da ekitaldi batean eta hiru koadrotan, Manuel Fernández Caballeroren musikarekin eta Miguel Echegarayren libretoarekin. 1893an estreinatu zen eta argumentua mundu lirikoaren parodia egiten duen vodevil kastizo eta desternillante bat da, italiar makarroikoa espainiar herrikoiarekin nahasten duen musika barne.

Querubini italiar enpresariak zuzendutako bigarren mailako opera-antzoki baten bastidoreen artean gertatzen da istorioa. La

Antonelli da bere emaztea, konpainiako prima donna eta sevillarra. Argudioa korapilatu egiten da tenorea dibaz maitemintzen denean. Antzerkiaren barruan antzerkia antzetzeko ideiak aukera

ematen dio publikoari antzezleek ikuspuntutik ekintza behatzeko, une batzuetan pertsonaiak ikusleari bizkarra emanda kokatzen baitira protagonistak interpretatzen dituztenean.

## Janus Lesterren kontzerturako sarrerak agortu dira

Janus Lester, 2025ean arrakasta gehien lortu duen euskal musikarietako bat, Muxikebarrin izango da ostiralean, urtarrilak 30, Negufest jaialdiaren barruan. Emanaldia 21:00etan hasiko da eta sarrerak agortu dira.

Kontzertuan, Janus Lesterrek bere bigarren diskoa aurkeztuko du, *Lore*, Euskal Herriko eszenatoki onenetara eramaten ari den bira luze baten barruan. Askotan zaila da asmatzea zer falta den lore bat loratzeko, ura edo argia izan daitezke burura etortzen zaizkigunak, baina beste mila faktore egon



daitezke tartean, hala nola airea, kokapena edo lurra. Horrelakoa izaten da disko berri baten loraldia ere, galderaz eta zalantzez betetako bidea.

## “Lamiaren ispilua”, jolasa, fantasia eta erritmoa

Muxikebarrik *Lamiaren ispilua* muntaia hartuko du igandean, otsailak 1. Haurrentzako ikuskizun honek euskal mitologia, jolasa, fantasia eta erritmoa uztartzen ditu, esperientzia bisual eta dibertigarria sortzeko, irudimena eta hausnarketa bezalako gaiak landuz, Lamiak bezalako pertsonaien bidez. *Patata Tropikala Antzerki-laborategia* konpainiak interpretatuko du, proposamen fresko eta sortzaileengatik ezaguna, eta 18:00etan hasiko da. Sarrerak 8 euro balio du.

Neska batek ispilu oso berezi bat aurkitzen duenean hasten da argudioa: islatzeaz gain, galderak egiten dituen eta bere irudimena pizten duen ispilu bat.

## Antzerki talde Antirrazistaren saioak

Getxo Antirrazista udal Estrategiak sustatutako antzerki taldeak saio gehiago antolatu ditu, bere sentsibilizazio lana egiten, eta arrazakeriaren kontrako jarrera eta diskurtsoa ikusarazten jarraitzeko baita aniztasunaren aldekoa ere.

Herritarrentzat zabalik egongo diren hurrengo saioak otsailaren 9an, martxoaren 2an eta apirilaren 20an izango dira Getxo Elkartegian, 18:00etatik 20:00etara, berriro Aitor Vinagret aktorea eta komedianteak dinamizatuta. Izenematea: [antirumores@getxo.eus](mailto:antirumores@getxo.eus) / 662 425 662.



## Ainola Quartet Franz Schuberten jaiotzaren 229. urteurrena ospatzen

Ainola Quartet, nazioartean proiektio handiena duen ganbera-taldeetako bat, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan arituko da larunbatean, hilak 31, *Neguko bidaia* zikloaren barruan. 19:30etik aurrera, Aimar Tobalinak (biolina), Margaux Rouzeauk (biolina), Harrison Swainstonek (biola) eta Nadia Barrowek (biolonbaxela) *Alles Gute zum Geburtstag, Franz!* (*Zorionak, Franz!*) errezitaldia eskainiko dute. Franz Schuberten jaiotzaren 229. urteurrena ospatzeko. Beethoven eta Turinaren piezez gain, Schuberten obrarik bikainenetako bat interpretatuko dute: *Re minorreko laukotea*, *Heriotza eta dontzeila*. Sarrera: 5 euro.



## “Por mujer: una historia desigual”, hala eta guztiz ere, izateari uko egin ziotenei omenaldia

Cristina Gutierrez-Meurs idazle, artista eta aktibistak *Por mujer: una historia desigual* liburua aurkeztu du Romo Kultur Etxean. Testu horrek emakume izateagatik beren garaietako pisua hartu zutenen aztarnak jarraitzen ditu: idazleak, artistak, sendatzaileak, maistrak eta beste hainbat. Gutun, albiste, testigantza eta memoriaren zatiak elkartzen dira, ahanzturaren aurkako mosaiko bat eraiki arte. Bidaia pertsonala eta kolektiboa da, eta hitzek, irudiek, bizipenek eta istorioek bat egiten dute, hala eta guztiz ere izateari uko egin ziotenak aldarrikatzeko.

Berrikuntzan, enpleguan eta lankidetzan profesionalen eragin zuzena duten 15 enpresa eta proiektuak betetzen dute zentroa

## Getxo Sormen Hub-ek sormen- eta kultura-ekintzailetzaren eragile gisa duen zeregina sendotu du


Berrikuntzan, enpleguan eta lankidetzan profesionalen eragin zuzena duten 15 enpresa eta proiektuak betetzen dute zentroa Getxo Sormen Hub-ek sormen- eta kultura-ekintzailetzaren eragile gisa duen zeregina sendotu du Getxok "Getxo Sormen Hub", udalerriko kultura- eta sormen-sektoreko lehen ekintzailetza zentroa, Algortako Urgull Zentroan dagoen lan espazioak lagatzeko 2026ko deialdia ebatzi du. Esleipen berri horrek indartu egiten du Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapena Arloak bultzatutako proiektuaren izaera estrategikoa, sormen- eta kultura-industriari lotutako talentua, enplegua eta inbertsioa sortzeko, erakartzeko eta atxikitzeko.

Getxo Sormen Hubek 194 m<sup>2</sup>-ko espazioa du, eta 22 lanpostu ditu coworking formatuan — 10 finko eta 12 txandakakoak —, eta sektorea profesionalizatzea bideratutako ekintzak eskaintzen ditu, hala nola aholkularitza espezializatua, presakuntza-programak eta topaketa profesionalak.

### Ekosistema anitza eta oso espezializatua

Deialdi honetan 15 enpresa eta proiektu izan dira esleipendunak, eta 17 lanpostu beteko dituzte guztira. Hautatutako proiektuek Getxoko ekosistema sortzailearen aniztasuna eta maila profesional handia islatzen dute, honako hauekin lotutako ekimenak izanik:

- Barruko espazioak diseinatzea, etxebizitzak bioeraikitzea eta birgaitzea, pertsonak eta ingurunea ardatz hartuta.
- Erakunde-aholkularitza, enpresa-kudeaketaren berrikuntza eta hobekuntza ikuspegi holistikoa batetik, baita lan-arriskuen prebentzioa ere, ekitaldien segurtasunean espezializatua.
- Komunikazioa, diseinu estrategikoa, brandinga, seinaleketika eta ingurumen-diseinua, esperientzia handiko taldeen eskutik.
- Aniztasunerako ekosistema teknologikoa eta soziala bultzatzen duen elkarte baten parte-hartzea, soluzioak sortuz 3D inprimaketaren eta parte hartzeko prozesuen bidez.
- Itzulpen teknikoko profesionalak (frantsesetik eta ingelesetik gaztelaniara), front end eta back end garapena, zerbitzarien kudeaketa, proiektuen kudeaketa eta kontabilitatea.
- Sormen-sektorean, marketinean, ikus-entzunezkoetan, audio-soluzioetan eta soinu-brandingean espezializatutako taldeak, garrantzizko proiektuetan ibilbide sendoa dutenak.



Proiektuen direktorio eguneratua: <https://labur.eus/kro2bsnq>

### LAN EREMU BEREIZI ETA AURREKO DEIALDIKO PREZIO BERA

- **Lanpostu finkoak:** 75 euro/ hilean + BEZ
- **Txandakako lanpostuak:** 40 euro/ hilean + BEZ
- **Honako hauek sartzen dira:** elektrizitatea, Internet, klimatizazioa, segurtasuna, mantentze-lanak eta garbiketa, baita bilera-gela bat eta guztiek erabiltzeko office bat ere.
- **Elkarlanerako, ikaskuntzarako eta hazkunde profesionalerako topagunea,** udalerriko sormen- eta kultura-sektorea indartzeko sareak, sinergiak eta aukerak sortzeko.

### Espazio eta plaza erabilgarrien lagapena

Espazioen lagapena hasieran bi urterako ezartzen da, 2026ko otsailaren 1etik aurrera, beste bi urteko luzapen baterako aukera izanik. Enpresa-proiektu bakoitzak bi lanpostu bete ahal izango ditu gehienez. Gaur egun, bi lanpostu finko eta txandakako hiru daude eskuragarri, eta Udalaren egoitza elektronikoaren bidez eska daitezke.

**Gero eta inpaktu handiagoa duen proiektua** 2025ean, 400 enpresak eta profesionalak baino gehiagok hartu zuten parte Getxo Sormen Hubek bultzatutako ekintzetan, eta topaketa profesional garrantzitsuak egin ziren 1.200 pertsona baino gehiago bilduz. Hiru urte hauetako ibilbidean, zentroak 24 enpresa eta proiektu hartu ditu.

Sormen- eta kultura-sektoreak gero eta pisu handiagoa du tokiko eta erkidegoko ekonomian: Getxon erregistratutako enpresen eta profesionalen %11k hogeit bat sormen-diziplinatan garatzen du bere jardura. Sektore horrek %5etik gorako ekarpena egiten dio Euskadiko BPGari, eta mikroenpresek osatzen dute gehienbat, %95ek langile bat edo bi baititu.

Juanma Gonzalez Getxolan-Ekonomia Sustapena Arloko zinegotziaren hitzetan, "helburua da Getxon eragin positiboa sortuko duten aukera-espazioak sortzen eta sendotzen jarraitzea, jardura ekonomikoa bultzatuz eta sektoreko mikroenpresei lagunduz. Getxo Sormen Hub-ek ekintzailetzan, oro har, eta sormen- eta kultura-sektorean, bereziki, antzemandako beharrei erantzun nahi die. Getxok gehienbat mikroenpresek osatutako enpresa-sarea du, eta horiek babestea lehentasuna da Udalarentzat, lan egiteko, lankidetzan aritzeko eta proiektuak sortzeko espazioak bultzatuz".

## Euskalerriko Eskautak Bizkaiako taldeek hondakinak bilduko dituzte Ereagako hondartzan, igande honetan, otsailak 1

Euskalerriko Eskautak Bizkaia elkarteko 14 eta 16 urte bitarteko 150 gazte baino gehiagok hondakinak bilduko dituzte Ereagako hondartzan igande honetan, otsailaren 1ean, Surfriider Foundation ingurumen-arloko GKE-rekin elkarlanean. Erakunde horrek munduko kostaldeak eta ozeanoak babesten ditu.

Eskaut gazteek igandeko goiza igaroko dute plastikozko botilak, ontziak eta hainbat hondakin biltzen, Getxoko kostaldearen edertasun naturala garbitu eta zaintzeko. Bildutako zabor-pieza bakoitza Ocean Initiatives programako GKE haren



protokoloaren bidez sailkatuko da, eta, ondoren, Europako Ingurumen Agentziara bidaliko dira datu horiek. Behin lana eginda, hausnarketarako tartea izango dute gazteek, bizi izandako egunaren harira.


"Eskaut mugimenduari harrotu egiten zaio ekitaldi hau eta horrelako ekimenak eragile ezberdinekin egiten jarraitu ahal izatea eta bertako gazteek inguruaren babesarekin konprometituta jarraitzea. Bere parte-hartze aktiboak erakusten du komunitatearekiko duen erantzukizuna eta mundua aurkitu zuten baino egoera hobean uzteko nahia", adierazi dute Euskalerriko Eskautak Bizkaiakoek.

# Getxok Bizkaibiziko hiru geltoki berri izango ditu Iparbiden, Sarrikobason eta Maidaganen

Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinatuta, Bizkaibizi zerbitzua zabalduko du denbora gutxi barru, eta hiru geltoki berri jarriko ditu Iparbide, Sarrikobaso eta Maidagan kaleetan. Izan ere, herritarren erabilera-eskari handia duten eremuak dira.

Sistemaren azken jarraipen txostenaren arabera, 2025eko abenduari dagokiona, Getxo da Bizkaibizi sare osoko bidaia kopuru handiena duen udalerria, hilean 36.498 erabilerarekin, eta, gainera, urteko metatuan liderra da, 464.086 joan-etorriekin, gainerako udalerrri metropolitarraren gainetik.

Dokumentuak baieztatzen du, halaber, Bizkaia osoan gehien erabiltzen diren 10 geltokietatik 7 Getxon daudela, hileko 4.000 erabileratik gorako batez bestekoekin, Areta (4.900 alokairu) edo Fadura (4.227) bezalako puntuetan. Zerbitzu osoko lehen eta hirugarren geltokirik ezagunak dira. Era berean, Getxok du



sistemaren presiorik handiena, 2.147 bidaia egiten baititu hilean estazio bakoitzeko, metropoli-lurralde osoko kopururik handiena. Gainera, iaz lider jarraitzen zuen, 2025ean metatutako alokairu kopuru handienarekin, 464.086 alokairurekin.

Geltoki berri hauek aukera eman- go dute dagoen sarea arintzeko, lurralde estaldura hobetzeko eta barne mugikortasuna errazteko, Getxotik egindako joan-etorrien %72 udalerrri barruan gertatzen baitira. Iparbide, Sarrikobaso eta Maidagan gehituta, Udalak mu-

gikortasun iraunkor, irisgarri eta konektatu baten aldeko apustua indartzen du, herritarren benetako beharrei erantzun zuzena emanez.

Hiru geltoki berri horiekin, Getxok 20 geltoki izango ditu guztira.



## Getxo Kirolak-en osasun zerbitzuak hipopresiboen eta 5P Metodoaren ikastaroarekin zabaldu du eskaintza

Osasun, Getxo Kirolak-en osasun zerbitzua, ireki zuten berriro iragan urrian eta bere eskaintza zabaldu du hipopresiboen eta 5P metodoari buruzko ikastaro batekin. Jarduera berri hori pelbiseko lurzoruan adituak diren fisioterapeuta batzuk osatutako taldeak emango du, eta pelbiseko eremuaz gain, gerriko abdominala eta gorputz-jarrera eta -kontrola indartzen lagunduko du. Klaseak 50 minutukoak izango dira eta Faduran emango dira astearte eta ostegunetan, 9:15ean, eta 60 euro/hileko prezioa izango du.

Osasun zerbitzu berriak fisioterapia eta errehabilitazio saioak eskaintzen ditu urritik, bakarka zein taldeka. Eskaintza hau udal kirol erakundeko abonatuak eta abonatu ez direnei zuzenduta dago. Banaka-

ko tratamenduen kasuan, 45 euro/orduko prezioa dute (abonatuta ez daudenek, gainera, 3 euro ordaindu behar dute kiroldegira sartzeko). Era berean, errehabilitazio-programa bat egiten ari dira talde txikietan (gehienez 8 pertsona), min iraunkorrak edo gaitz kronikoak dituztenentzat. Tratamendu horiek paziente bakoitzari gomendatzen zaion lan espezifiko integratuz diseinatzen dira, eta hilean 60 euroko prezioa dute asteko saio bategatik, eta 99 eurokoa bi saioengatik. Halaber, Osasun sailak esfortzu-probak ere eskaintzen ditu, 100 euroko prezioan.

Interesatuak deitu edo WhatsApp bidali dezakete (683 571 560) edo e-posta [osasunzerbitzuagk@gmail.com](mailto:osasunzerbitzuagk@gmail.com) helbidera.



## IBILKI mendi taldeak arrakastaz amaitu du lankidetzaren eta espedizio inklusiboko proiektua Jordanian

Getxoko IBILKI mendi klubak arrakastaz amaitu du lankidetzaren eta espedizio inklusibo eta kulturarteko proiektua, Jordanian. Urtarrilaren erdialdean, Desgaitasunari eta Gizarte Integrazioari buruzko Nazioarteko Konferentzien esparruan (ICDSI-26), Zarqa hirian, 12 herrialde baino gehiagotako hizlariak parte hartu zuten, eta Christian Rodriguezek, klubeko presidentea eta Euskal Mendizale Federazio-ko inklusio ataleko arduradunak, *Mountains & wild nature for all* hitzaldia eman zuen, eta ekitaldiaren barruan hobekien baloratutako pona zientzia gisa aukeratu zuten.

Hurrengo egunetan bi eskalatzailerekin bildu ziren, biak errefuxiatu palestinarrik, Hosni Khatib eta Jarrah Alhawamdeh. Azken hori,

hanka bat moztuta duena, Jordaniako eskalada gidaririk onenetako bat da.

IBILKiko eta Climbing for Palestine erakundeko taldeek eskalada egin zuten ingurune naturaletako hainbat bidetan, eta herrialdeko gailurrik altuenera igo ziren, Jabal Umm al Damira, 1.854 metroko altitudea duena, lurraldearen hegoaldean.

IBILKik esperientzia du mendibildietan, mendian, espeleologian eta eskaladan Euskadin, baina espedizioak ere egiten ditu nazioarteko lankidetzari lotuta, besteak beste Guatemala, Argentina, Maroko, Irlanda eta Armeniako hainbat eskualdetan, mendien eta desgaitasunaren eremuko tokiko elkarte eta pertsonekin.

# Udal talde politikoaren iritzia



## BERMEAK, ERAKUNDEEKIKO ERRESPECTUA ETA ZERBITZU PUBLIKOA

Getxoko EAJ-PNVtik herritarrengana zuzendu nahi gara gure udalerrientzat konplexua den une honetan, San Nikolas 11 eraikinarekin lotutako ikerketa judiciala martxan den momentu honetan. Gobernu-taldea osatzen zuten hiru zinegotzi ikertu gisa deitu dituzte prozesuaren barruan. Egoera horren berri izan zuten une beretik, beren karguak alderdiaren esku jarri zituzten eta dagoeneko beren eginkizunetatik kendu dituzte.

Ikerketa instrukzio fasean dago oraindik, eta epaitegiak ez du akusaziorik aurkeztu. Errugabetasun-presuntzioa errespetatuta, aintzat hartzen ditugu pertsona horiek beren erantzukizunak betetzean erakutsi duten ibilbide profesionala eta konpromisoa.

EAJ-PNVtik argi utzi nahi dugu justiziaren lana erabat errespetatzen dugula eta justiziarekin kolaboratzeko dugun prestasuna erabatekoa dela. Hala ari da egiten

Getxoko Udala, eskatutako informazio guztia erraztuz eta ikerketaren garapenerako laguntza eskainiz. Aldi berean, Amaia Agirre alkateak udaleko langile guztiei helarazitako mezua partekatzen eta babesten dugu: zerbitzu publikoa bokazio duten udal-langileek egunero egiten duten lan profesional, zorrotz eta konprometitua aintzatesten dugu. Horrelako momentuetan, garrantzitsua da lana arduraz betetzen dutenak bidegabeki zailantzan jartzen dituzten epaiketa paraleloetan ez erortzea.

Getxoko EAJ-PNVtik uste dugu eredu-garritasunak eta gardentasunak gidatu behar dutela beti gure lan publikoa, eta norabide horretan lanean jarraituko dugu. Getxok erakunde indartsuak, hurbilekoak eta irekiak merezi ditu. Horregatik, gure udal taldetik zintzotasunez eta arduraz lanean jarraitzeko borondatea berresten dugu, interes orokorraren alde eginez.



## ALKATEAK DIMISIOA AURKEZTU BEHAR DU

Azkenaldian, Getxoko udal-kudeaketa gero eta kezka handiagoko garaia bizitzen ari da, getxoztarren konfiantzaren narriadura eta gobernu-taldearen **lidergo-gabezia** direla-eta. Azkenengo urteetan, hainbat gertakarik Udalaren jarduna zailantzan jarri dute, hala nola **udal-kontabilitatetik 7 milioi euro desagertzea**, **Kirol Portuko hotelarekin lotutako irregulartasunak** eta Eragako **La Terrazaren kudeaketa**, zeinak 600.000 euro inguruko zorra eragin zuen. Horri guztiari udal-zerbitzuen pixkanakako narriadura gehitu behar zaio, argi ikusten baita lorezaintza eta

beste oinarritzko arlo batzuetan utzikeria dagoela. **Jauregitxoaren kasua** bereziki kezkarria da eta horixe baino ez genuen behar. Ertzaintza udal-bulegoetan sartu eta, ondoren, **EAJ-PNVko hiru zinegotzik dimisioa aurkeztu** izan argi uzten du **jarduketa irregularrak** larriak direla eta alkateak, **horien berri izan arren, ezkututzen saiatu zela**. Egoera horren aurrean, osteguneko, urtarrilaren 29ko, **Osoko Bilkuran** alkatearen **dimisioa** eskatu dugu, Getxon normaltasun instituzionala berreskuratzeko ezinbesteko urratsa baita.



## ehbildu

## IRURAK BAT AUZIA: OPAKUTASUNAREN PREZIOA GETXON

Irurak Bat jauregi babestuaren legez kanpoko eraisketak eta ondorengo udal kudeaketak krisi politiko eta administratiboa eragin dute Getxon. Gaur egun, Instrukzioko Epaitegia delakoak ikerketa penala dauka irekita, eta ez da eraisketa bera soilik aztertzen ari, baizik eta Udalak espediente zigortzailea nola izaipidetu duen ere.

2024ko abuztuaren 2an jauregia eraitsi zenetik, EH Bilduk etengabe azalpenak eta informazioa eskatu ditu. Udal gobernuak oztopatu du oposizioaren lana, batzordeetan azalpenak emateari uko eginez, funtzionamendua bera molda-

tuz eta kontrol politikoa saihestuz. 2024ko iraileko udalbatzan EH Bilduk Udala Fiskaltzara jotzea proposatu zuen, baina PNVk eta PSEk, PPren abstentzioarekin, atzera bota zuten. Urriaren 14an, EH Bilduk berak jarri zituen gertakariak Fiskaltzaren esku. Ondorengo hilabeteetan, gobernuaren jarrerak bere horretan jarraitu du. Azaroan, PPK ez zuen babestu EH Bilduk proposatutako Hirigintza Sailaren auditoria, eta 2025eko urtarrilean, Udala ez zen akusazio partikular gisa pertsonatu, berriro ere PPren abstentzioaren ondorioz.

Presio politikoaren aurrean hartutako neurri bakarra sustatzaileari 50.000 euroko isuna ezartzea izan da, nahiz eta udal txosten tekniko batek 730.000 eurotik gorako etekin ekonomikoa egon zela ondorioztatu. EH Bilduren helegiteari esker, Udaleko idazkariak espediente hasierara atzera botatzeko agindu zuen, akats larriak aitortuz. Instrukzio judiciala aurrera egin du, epaileak sumarioa sekretupean ezarri eta udal-egoitzetan erregistroak egiteko agindua eman du. Ondorioz, kooperatibari lotutako lau pertsonaz gain, udaleko hiru teknikari eta PNV-

ko hiru zinegotzi ikertutzat jo ditu epaileak, azken hauek euren karguak utzi dituztelarik. Gertatutakoa ez da kasu isolatua, baizik eta azken urteetan interes pribatuak ondare publikoaren gainetik jarri dituen gobernu eredu baten ondorioa. EH Bilduk argi dauka: ez dugu beste alde batera begiratu. Egiaren berri izan arte eta dagozkion erantzukizun politikoak argitu arte lanean jarraituko dugu. Getxok gardentasuna, erantzukizuna eta bere ondarea benetan defendatuko duen udal gobernuarekin me-rezi ditu.



## IRURAK BAT KASUAN IRMOTASUNA ETA GARDENTASUNA



## JENDEAREN AHOTSA GEHIAGO ENTZUN DADILA

EAJ-PNVko hiru zinegotzi ikertutzat jotzen dituen sumarioaren sekretua altxatu ostean, PSE-EEko kideok **ezinbestekotzat daukagu dimisioa aurkeztu izana**. Hori dela-eta, Udala instituzio-krisi larrian dago, eta **herritarren konfiantza narriatzen duelakoan** gaude.

Alkateari jakinarazi diogu Alderdi Sozialistak konpromisoa daukala sortutako krisia konpontzen laguntzeko,

erantzukizunik ez badu ere. Helburua **governagarritasuna berreskuratzea** da, instituzioak **Getxok dituen erronkei aurre egiteko** indarrak jartzen jarrai dezan, besteak beste, **etxebizitza eskuratzeko errazteko konponbideak** garatzea, **irigarritasuna** eta **hiri-bilbea hobetzen** jarraitzea, Getxoko hiri-autobusa errealitatea izatea eta mendeko pertsonentzako benetako **zaintza-politika pu-**

**blikoa** ezartzen eta hobetzen jarraitzea. Halaber, berriro adierazi nahi dugu **erabat errespetatzen ditugula ikerketa judiciala eta poliziaren ikerketa**. Gai horretan **PSE-EEK ez dauka erantzukizunik** eta, gogorarazi nahi dugu, Gobernu Batzarrean hartzen diren erabakiak egintza arautuak direla, irizpideen arabera eta udal-txosten teknikoetan oinarrituak.

Parte-hartze izaerako aurrekontuei esker, udal-aurrekontuaren zati bat zertan inbertitzen den erabaki dezakete herritarrek. Herritar gehiagok parte hartu ahal izatea eta elkarten proposamenek balio handiagoa izatea nahi dugu. Helburua da herritarrek ez bozkatzeko Udalak jada egin beharrekoak, azaltzea zergatik uzten diren albo batera gehien errepikatzen diren ideiak eta auzo guztietara heltzea, postontzi eta informazio-postu gehiagorekin.